

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ESKUERNAGAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea auzolanen ordenantza eta ezkontza espedienteen instrukzioa eta izapidea egitearen eta ezkontza zibilak egitearen tasa sortzeari

Eskuernagako Udalak behin betiko onetsi du auzolanen ordenantzaren eta ezkontza espedienteen instrukzioa eta izapidea egitearen eta ezkontza zibilak egitearen tasa espedienteak sortzea, espediente hori jendaurrean egon den bitartean ez baita haren aurkako erreklamaziorik aurkeztu.

Auzolanen ordenantzak, hitzez hitz, honela dio:

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea da udalerrri honetako auzolanak arautzea eta zehaztea, norberak nahitaez udalerrrian eman beharreko zerbitzu gisa ulertuta, Eskuernagako udalerrriak esleituta dituen eskumenen esparruan.

2. artikulua. Definizioak

Ordenantza honen ondorioetarako, honako definizio hauek ezartzen dira:

2.1. Auzoko familia: Pertsona edo pertsona taldea, udalerrrian teiltupe berean bizi dena.

2.2 Egoitzadunak: pertsona edo pertsona taldea, euren artean ahaide izanik edo izan gabe, edozein tituluren bitartez kontzejuan etxebizitzaren bat daukana, udal erroldan inskribatuta egon ala ez.

2.3. Auzolana: udalerrrian auzokoek edo egoitzadunek egin beharreko lana; lan horren xedeak izan behar du erabilera edo zerbitzu publikorako diren udalaren ondasunen edo erabilera esleiturik dituen ondasunen eraikuntza, konpontze edo mantentze lanak egitea.

Auzolanak honela sailkatzen dira:

2.3.1. Ohiko auzolanak: urtean zehar egiten direnak, instalatu eta onik mantendu ahal izateko erabilera edo zerbitzu publikorako diren udalaren ondasun eta zerbitzuak.

Lan hauek egin daitezke auzolanetan:

a) Udalaren jabetzakoak diren eraikinak eta gune publikoak konpondu, garbitu eta mantentzea.

b) Herri barruko bide publikoak eta haien osagai guztiak zaindu, konpondu, hobetu eta garbitzea.

c) Mendi eta ibaietan garbiketa, sastraka kentze eta birpopulatze lanak egitea.

d) Udalaren eskumeneko lurraldean pertsonentzako arriskuak saihesteko lanak egitea.

e) Bideak, landa bideak, baso bideak eta bidezidorrak egin, konpondu eta zaintzea.

f) Hilerria zaindu, konpondu, hobetu eta garbitzea.

g) Udalerrriaren onurarako beharrezko izan daitekeen beste edozein ekintza.

2.3.2. Ezohiko auzolanak: hondamendi, uholde, sute edo aurreikusitako ezin daitekeen beste edozein fenomenoren ondorioz sortzen diren auzolanak, nahitaezkoak, guztien onerako baitira eta berehala jardutea eskatzen baitute.

3. artikulua. Ezohiko auzolanak egitera behartuta dauden pertsonak

3.1 Auzolanak denoi dagozkigunez gero, nahitaezkoa da, gutxienez, udalerriko familia bakoitzeko kide batek 2.3.2 artikuluan zehaztutako ezohiko auzolanetan parte hartzea, baita egoitzadunak edo udalerrian etxe berean bizi diren egoitzadunetarikoa batek ere. Hala ere, salbuespenak badaude. Hona hemen horiek:

a) Familiako, egoitzadunetako edo egoitzadun taldeko kide guztiek 18 urtetik beherakoak edo 65etik gorakoak izatea.

Aurrekoa gorabehera, 65 urtetik gorakoak ere joan daitezke auzolanetara beren borondatez, eta eurak ere istripu eta kalteetatik babestuta egongo dira dagokien aseguruarekin.

b) Auzolana egitekoa den egunean aurreko apartatuan sartu gabeko kideak ezindurik dituzten familiak.

3.2. Egitekoa den lanaren tamainaren eta hedaduraren arabera, betebeharra duen lagun kopuru jakin bati egin ahal izango zaio deia auzolanerako. Euren trebetasuna eta zenbateraino prest dauden kontuan izanda deituko zaie, besteei ahalik eta eragozpen txikiena eraginez. Dena den, egiten dituzten auzolanak kontuan hartuko dira hurrengoan ezohiko auzolanen deialdi orokorrak egiten direnerako, eta horietara ez joateko aukera izateko.

4. artikulua. Deialdia

4.1 Udaleko alkate-lehendakariak egingo du auzolanerako deia, eta erabakiko du derrigorezkoa ala borondatezkoa den, eta zer lur eremuri eragiten dion; deialdian bertan zehaztuko du zein lan egingo den, non eta zer ordutan hasiko den eta noiz buka daitekeen, bai eta zein lanabes eraman ere, 1. eranskinean ageri den moduan.

4.2. Ohiko auzolanetarako deia ohiko eran eta erakundearen iragarki oholean oharra jarriz egingo da, auzolanetara joateko betebeharra dutenak agertu ahal izateko moduko denboraz; salbuespena izango dira ezohiko auzolanak, berezko izaeratik ez baitute baldintza hori bete beharko.

4.3. Edonola ere, auzolanak arrazoizko epean egin ahal izateko aukera aztertuko du udalak, kontuan hartuta premiazko kasuak, eguraldia etab., betebeharra dutenek lan horiek ahalik eta erosoan egin ahal izan ditzaten.

5. artikulua. auzolanak nola egin

5.1. Oro har, ezarritako orduan eta adierazitako lekura joanez hartuko da parte auzolanetan, bakoitzak egin beharreko lan motarako aldeztu aurretik zehaztu diren lanabes eta makineria nork berarekin ekarriz.

5.2. Horretarako, auzolanen liburu ofizial bat egongo da, eta bertan aintzat hartu beharreko gorabehera guztiak jasoko dira, 2. eranskineko eredu orrian agertzen den eran.

5.3. Udalak pertsona bat izendatuko du (zinegotzia, udal langilea edo egoitzaduna) auzolanak antolatu eta egiteko, eta berak banatuko ditu pertsonak eta bitarteko materialak haiek modurik egokienean burutu daitezen.

5.4. Auzolanerako unea aukeratzerakoan, ahalegina egingo da udalerrian lan gehien izaten den sasoiari izan ez dadin; asteko zein egunetan egin ere ondo aztertu beharko da, hala auzotarrak nola egoitzadunak, denak agertu ahal izan daitezen.

5.5. Udalak auzolanetan parte hartzen dutenak babestuko ditu. Horretarako, auzolanetatik sor daitezkeen istripu arriskuetatik eta bestelako kalteetatik babesteko asegurua egingo da.

5.6. Auzolanak ez dakar inolaz ere udalaren eta auzolanen parte hartzera behartuta dauden arteko lan harremanik.

6. artikulua. Libre geratzea

6.1. Nahitaezko auzolanean parte hartzeko betebeharra dutenek horretatik libre gera daitezke era hauetakoren batean:

a) Bere ordeztu lana egin dezakeen beste norbait bidaliz.

b) Lanordu bakoitzeko 10 euro ordainduz; ordainketa egingo da alde aurretik likidazioa jakinarazita, behar bezala eta 3. eranskinean zehazten den ereduaren arabera.

c) Huts egitea arrazoitua izanik, beste auzolan batean parte hartuz, egin gabekoaren ordainetan.

6.2. Erakundeak izendatutako pertsonari bidezko arrazoiak adierazi gabe, deitutako auzolanean huts egiten bada, nahiz eta hein batean huts egin bakarrik, artikuluko honen 1. apartatuaren b) letran xedatutakoa aplikatuko da eta, ondorioz, hor zehazten den zenbatekoa ordainduko.

7. artikulua. Kalte-ordaina auzolanean parte hartzeagatik

Auzolanean parte hartzeko betebeharra dutenek horrek eragiten dizkieten kalteen ordaina jaso ahal izango dute, udalak erabakitzen duenaren arabera.

Azken xedapena

Ordenantza hau ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta hala iraungo du indargabetzea edo aldatzea erabakitzen den arte.

1. eranskina

Auzolanaren deialdia (ohikoa edo ezohikoa, dagokionaren arabera)

Izaera (borondatezkoa edo nahitaezkoa)

Helburua:

Eguna:

Hasiera ordua:

Bukaera ordua:

Tokia:

Parte hartzaileek eraman beharreko tresnak:

Banan-banan deitutako pertsonak:

Ezkontza espedienteen instrukzioa eta izapidea egitearen eta ezkontza zibilak egitearen tasak arautzen dituen zerga ordenantzak honela dio hitzez hitz:

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Bat etorri Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 20.3.bis artikuluan xedatutakoarekin, udal honek ezkontza zibilen espedienteen instrukzioa eta izapidea egitearen eta ezkontza zibilak egitearen tasa ezarri eta galdegingo du.

II. Zerga egitatea

2. artikulua

Honakoek osatuko dute tasaren zerga gaia:

- a) ezkontza zibilen espedienteen instrukzioa eta izapidea egiteko administrazio jarduerak.
- b) ezkontza zibilak egitea.

III. Subjektu pasiboak

3. artikulua

Ordenantza honek aipatzen dituen administrazio zerbitzuak eskatzen dituzten ezkongai fisi-koak dira subjektu pasiboak, zergadun gisa.

IV. Zerga oinarria

4. artikulua

Tasaren zerga-oinarria ezkontza-espedienteak modu zibilean instruitu eta tramitatzeko eta ezkontza zibilak egiteko zerbitzu publikoaren kostua da.

V. Kuota

5. artikulua

1. Hau da ezkontza zibilen espedienteen instrukzioa eta izapidea egiteagatik ordaindu beharreko tasaren kuota: 100 euro.
2. Hau da ezkontza zibilak egiteagatik ordaindu beharreko tasaren kuota: 50 euro.

VI. Sortzapena

6. artikulua

Jarduera edo espedientea abiarazteko eskaera aurkezten denean sortzen da tasa ordaintzeko betebeharra, eta jarduera edo espediente hori ezingo da egin edo izapidetu ordaindu beharrekoa ordaindu arte.

VII. Likidazioa eta diru sarrera

7. artikulua

1. Tasa autolikidazio erregimenean eskatuko da, eta ezkontza espedientea irekitzea edo ezkontza egitea eskatzen den unean ordaindu beharko da.
2. Tasa udalarekin lan egiten duten banku erakunderen batean ordainduko da.

VIII. Tasaren kudeaketa

8. artikulua

Ordenantza honek arautzen duen tasaren likidazioari, ordainketari eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta kasu bakoitzean dagozkion zehapenei dagokien guztian, Arabako Lurralde Historikoko Zerga Arau Orokorrean ezarritakoa aplikatuko da.

IX. Salbuespenak

9. artikulua

Tasa ordaintzetik salbuetsita daude Eskuernagako udalerrian erroldatuta dauden subjektu pasibo zergadunak.

Azken xedapena

Ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta indarrean jarraituko dute berriaz aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da. Ediktu honen kopia Eskuernagako udaletxeko ediktu taulan egongo da ikusgai, ondorio berberekin.

Eskuernaga, 2019ko azaroaren 26a

Alkatea

IÑAKI PEREZ BERRUECO